



# HamaiKa

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA

5. Zenb. Uztaila 2016



**EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA DEPORTIBO ALAVES  
LEHENENGO MAILARA IGO DA 10 URTEREN ONDOREN ETA ATHLETIC  
FEMENINOAK HISTORIA EGIN DU BERE BOSGARREN LIGA IRABAZTEAN**

# TXAPELDUNAK!



**EUSKAL SELEKZIOAK KONPLITU DU KORSIKAKO  
NAZIOARTEKO LAGUNARTEKO PARTIDUAN**





Practica el  
*Vacacioning*  
de NAUTALIA



*Practica desconecting,  
playing o disfruting...*

RESERVA  
desde solo  
**50** €\*  
por persona

MEJOR  
PRECIO  
garantizado

FINANCIACIÓN\*\*  
en **10**  
MESES

HASTA  
**14**%  
un  
DE DESCUENTO

Consultar condiciones de aplicación de estas promociones en nuestras Oficinas. \* Depósito no reembolsable.

\*\*Financiación: consulta condiciones de financiación ofrecida, sujeta a estudio y aprobación por parte de Santander Consumer Finance. S.A.



200 oficinas  
902 811 811  
[nautaliaviajes.com](http://nautaliaviajes.com)

C.I.C.M.A. 2448Mm



**NAUTALIA**  
Conecta con tu mundo

ARABA-ÁLAVA | Vitoria-Gasteiz | Av. Gasteiz, 34. Tel.: 945 10 47 74 | Zaramaga, 1. C. Cial. Boulevard. Tel.: 945 10 30 97 |  
BIZKAIA | Bilbao | Gran Vía D. Diego López de Haro, 82 (Metro: San Mamés/Indautxu). Tel.: 946 42 43 48 | Pza. San Francisco Javier, 1 (Metro: Indautxu). Tel.: 946 40 40 28 |  
Basauri | Pedro Bilbao, 2 (esq. Nagusia, 1). Tel.: 946 41 45 08 | Deusto | Luis Power, 28. Tel.: 946 43 80 03 | Galdakao | Juan Bautista Uriarte, 31 bajo. Tel.: 946 41 64 05 |  
Las Arenas-Getxo | Mayor, 4. Tel.: 946 42 46 82 | GIPUZKOA | Donostia-San Sebastián | Urbietta, 47. Tel.: 943 10 49 24 | Eibar | San Agustín, 5. Tel.: 943 10 89 60 |  
Irún | Plaza J.R. Agirretxe, 3 (fuente Luis Mariano). Tel.: 943 10 43 42 | Rentería | Av. Navarra, 63. Tel.: 943 10 43 44 | Urretxu | Labeaga, 41. Tel.: 943 10 98 78 |



|       |                       |
|-------|-----------------------|
| 3     | EDITORIAL             |
| 4-5   | ASAMBLEA GENERAL      |
| 6     | ATHLETIC CLUB         |
| 7     | SD EIBAR              |
| 8-9   | REAL SOCIEDAD         |
| 10-11 | SEGUNDA A Y SEGUNDA B |
| 12-13 | TERCERA Y REGIONAL    |
| 14-15 | CÓRCEGA-EUSKADI       |
| 16-17 | FÚTBOL BASE           |
| 18-20 | FEMENINO              |
| 21    | ALEVINES              |
| 22-25 | FÚTBOL SALA           |

©:

EUSKADIKO FUTBOL  
FEDERAKUNDEA  
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea  
Comité de Redacción  
Luis María Elustondo,  
Nerea Zalabarría, Kepa Allica,  
Haritz Gallastegi y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación  
Cantera Deportiva S.L.  
Disenu eta Maketazioa  
Diseño y Maquetación  
Cantera Deportiva S.L.  
Argazkiak. Fotografías  
Federación Vasca de Fútbol  
y Cantera Deportiva

HAMAIIKA  
Euskadiko Futbol Federakundea  
Julian Gaiarre 48 bajo  
48004 BILBAO  
Tfnoa: 94 473 19 00  
webmaster@eff-fvf.eus  
Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador  
Laguntzailea



Hamaika ez da bere laguntzaileen  
iritziak erantzule egiten  
Hamaika no se hace responsable  
de la opinión de sus colaboradores/as

## EDITORIAL

### FIN DE LEGISLATURA

**E**l 30 de Junio celebramos la última Asamblea de la presente legislatura 2012-2016 a la que le seguirá el nuevo período olímpico 2016-2020. Hemos seguido la pauta habitual de nuestra Federación incorporando mayor compromiso y actividad en algunas áreas concretas.

Nuestras selecciones tanto masculinas como femeninas, incluso el fútbol sala, han protagonizado mayor presencia deportiva tanto en Euskadi como en otros foros donde hemos sido invitados. En todos ellos hemos demostrado un alto nivel de calidad y esfuerzo con excelentes resultados. Es de justicia agradecer y reconocer la sensibilidad y el apoyo entusiasta a la tricolor de todos los deportistas en diferentes categorías y competiciones.

Entre los triunfos hemos de destacar el Campeonato estatal del año 2015 que tanto los sub-16 como lo sub-18 ganaron dejando a Euskadi en lo más alto del fútbol autonómico. Nuestro equipo femenino ganó en Azepeitia a Irlanda, en Estonia y a la selección catalana en Barcelona. Tampoco los chicos han perdido un solo partido.

Todos tenemos que felicitarlos: clubes, técnicos, jugadores, árbitros, directivos y por supuesto los asambleístas de la EFF que, cada uno en su entorno, hacen posible que sigamos adelante día a día.

Un sonrisa, una palmadita y a seguir trabajando queda mucho por hacer y mejorar, entre todos el trabajo será más llevadero y los objetivos más viables. En el interior de esta publicación recogemos con gran orgullo los grandes éxitos de nuestros clubes: ascensos, campeones, campeonas... ¡Zorionak!

Eskerrik asko denori

### LEGEALDIAREN AMAIERA

**J**oan den ekainaren 30ean ospatu genuen 2012-2016 legealdi honetako azkeneko Batzordea, jarraian 2016-2020 epe olímpiko berriari bidea emateko. Gure Federazioaren ohiko jarraibideak garatu ditugu, hainbat eremu zehatzetan konpromisoa eta jarduera hedatzera helduz.

Gure selekzioek, maskulinoek zein femeninoek, areto futbola barne, euren kirol presentzia berretsiz egin dute, bai Euskadin eta bai gorbitea luzatu diguten beste foro batzuetan. Horetan guztietan goi mailako kalitatea eta esfortzua erakutsi dugu, emaitzak bikainak izanik. Bidezkoa da eskertzea eta azpimarratzea kategoría eta txapelketa ezberdinetako kirolari guztiek hiru kolorekoa babesteko orduan erakutsi duten sentsibilitate gogotsua.

Garaipenen arloan gogoangarria iruditzen zaigu 2015. urteko estatuko Txapelketa, sub-16 eta sub-18 kategoriek irabaztea lortu zutena, horrela Euskadi autonomia futbolaren gorenera eramatea lortuz. Gure talde femeninoa gailendu egin zitzaion Irlandari Azepeitian, Estonian eta selekzio kataluniarrari Bartzelonan. Mutilek era ez dute partidu bakar bat galdu.

Guztiok zoriondu behar diogu elkarri: klubek, teknikariek, jokalariek, epailek, zuzendariak eta nola ez, EFF-ko batzordekideek, izan ere, bakoitzak bere esparruan guk aurrera egitea ahalbidetzen dute, eguneko egun.

Irribarre bat, bizkarreko txiki bat eta lanean jarraituz; asko dago egiteko eta hobetzeko; guztion artean lana eramangarriagoa izango da eta helburuak bideragarriagoak. Argitalpen honen baitan hartzen ditugu, harrotasunez, gure klubetako arrakasta nagusiak: igoerak, txapelkun maskulinoak eta femeninoak... Zorionak!

Eskerrik asko denoi





Juan Luis Larrea, Pedro Solaun, Luis Mari Elustondo, Kepa Allika, Xabi Irusta eta Nerea Zalabarria Batzordean

# BATZORDE NAGUSIAK 2016/17RAKO OINARRIAK FINKATU DITU

*Gasteizen ospatutako Euskadiko Batzorde Nagusian, aurtengo kategoria maskulinoko zein femeninoko garaipenak azpimarratu ziren.*

**Fran Rodríguez**

**O**raingoan Gasteizko Artium aretoa izan zen Euskadiko Futbol Federazioko Batzorde Nagusirako eszenatokia, ekainaren 30ean, Luis Mari Elustondo presidentearen eskutik; besteak beste, bertaratuak izan ziren Gipuzkoako Federazioko presidentea, Juan Luis Larrea eta Arabakoa, Pedro Solaun. Bizkaitik bertaratu zen hitzordura Jose Angel Labrador presidenteordea, federazioko beste hainbat kiderekin batera.

Federazio erakunde euskalduneko presidentek azpimarratu egin zuen euskal futbolaren orainaldi gogoangarria, bitzako igoera ezberdinen arabera, eta bereziki, Alaves taldearena, berriro Lehen Mailan jokatu duenez, hala nola Athletic femeninoak lortutako liga titulua.

Batzordean zehar, ontzat eman

ziren 2015 ekitaldiko kontuak eta 2016 ekitaldiko aurrekontua hala nola irailetik aurrera ekainera arte aurreikusitako kirol txapelketen plana, Gipuzkoako Aitor Gorostegi epailearen mailaigoera aipatu zen, Bigarren Mailara, eta laster nazioarteko epaile batekin kontatzeko asmoa defendatu zen.



Gipuzkoako Daniel Palencia epailea eta Arabako Isusko Lorz laguntzailea Hirugarren Mailako onenak izendatu ziren. Horiekin batera azaltzen dira Jon Agirre, Elustondo eta Solaun



## BIZKAIK ETA GIPUZKOAK JADANIK EZAGUTZEN DITUZTE 2016-20 DENBORALDIRAKO BERE PRESIDENTEAK

*2016 hauteskunde urtea da  
bai hiru Lurralde  
Federaziotan eta bai  
Euskadiko Federazioan.  
Bizkaiak eta Gipuzkoak  
jadanik ospatu dituzte.*

**Fran Rodríguez**



Larrea, Elustondo, Solaun eta Gómez Mardones

**B**izkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Federazioek jadanik ezagutzen dituzte 2016-2020 agintaldian bere Presidenteak izango direnak. Ez dago

aldaketarik, horrela, bai Iñaki Gómez Mardones eta bai Juan Luis Larrea euren kargua errepikatuzera datoz, bozketa egiteko beharrik izan gabe, Presidente izateko hautagai

bakarrak izategatik. Bitartean, Arabako Federazioak dagokion hauteskunde garaia zabalduko du uda amaieran, irailean. Bere egungo Presidentea Pedro Solaun da.

**EUSKADIKO  
FEDERAZIOKO  
HAUTESKUNDEAK  
URTE AMAIERAN  
OSPATUKO DIRA**

**E**uskadiko Futbol Federazioak, Luis Mari Elustondo presidentearekin, dagokion hauteskunderako deialdia egingo du, 2016. urteko azken hiruhilekoan. Organismo autonomikoa ezin izango da martxan jarri hiru lurraldekoek dagozkien Batzorde Nagusiak eratzen dituzten arte.

## FUNDACIÓN BAQUÉ: EMPRESA COMPROMETIDA CON EL DEPORTE





# ATHLETIC KLUBAK AZKEN 8 URTEOTAKO BERE EUROPAKO 6. PARTAIDETZA LORTU DU

*Zuri-gorriek zuzenean eskuratu zuten Europa League-ko taldeen faserako sarbidea, Ligako txapelketan bosgarren postu txalogarri batean sailkatu ondoren.*

**Adolfo Marcos**



Williams eta Aduriz, oinarrizkoak/ ATHLETIC CLUB

## UEL: LEHOIEK SEVILLAREN SUFRIMENDUA ERAGIN ZUTEN

Athletic Klubak ezin izan Azuen lehiatu Europa League titulu irrikatua, Sevilla esperimentatu baten aurrean final laurdenetan kanporatua izatean; hark izugarri sufritu zuen lehoien nagusitasuna agerian jarri zuen kanporaketa batean. Sevillako txapelkun aldarrikatu ziren penaltien txandan eta gero titulua eskuratu zuten, Liverpoolen kontra ospatutako finalean.

Athletic Kluba jadanik txapelketa europarretako klasiko bat bihurtu da, azkeneko zortzi denboralditan guztira sei partai-


detza lortuz. Oraingoan gainera aurretiko kanporaketak saihestuz eta zuzenean eskuratuz Europa League-ko taldeen faserako sarbidea, Ligan bosgarren postuan

sailkatu ondoren.

Amaiera bikaina, Superkoparen titulua lortu nahian abian jarritako denboraldi distiratsu baterako.

# HGB

HOTEL GRAN BILBAO



Bodas Comuniones Bautizos Cumpleaños  
Celebraciones deportivas Empresas

Síguenos y disfruta de extraordinarios descuentos en tu red social



HOTEL GRAN BILBAO Indalecio Prieto, 1 (esquina Miraflores) 48004 Bilbao  
Tel. 94 432 85 75 hotel@hotelgranbilbao.com www.hotelgranbilbao.com

**Sercotel**  
hotels

## SD EIBAR TALDEAK NAHIKOTASUNEZ BETE DU IRAUNKORTASUNAREN HELBURUA

*Armaginek lehenengo txanda bikaina garatu zuten, aldez aurreko jardunaldi batzuen bidez ziurtatuz, beste urte bat gehiagorako euren iraunkortasuna Lehen Mailan.*

**Adolfo Marcos**



Bastonek antolatutako golak / SD EIBAR

**K**onplexua aurreikusten zen denboraldi batean, gorputz tekniko berriarekin eta jokalaritza-talde erabat berrituarekin, SD Eibar iraunkortasunaren helburua

ageriko nagusitasunarekin lortzeko moduan aurkitu da, azken jardunaldiak gozatu ahal izanik eta horrez gain, bere filialeko harrobiko jokariak debutatzera eramanez.

### AMAIA GOROSTIZAK HARTU DU ALEX ARANZABALEN ERRELEBUA

**A**maia Gorostiza esleitu zuen, joan den maiatzaren 23an, Eibar SD-ko Administrazio Kontseiluak, erakunde armagineko presidente andre berria izateko, horrela Alex Aranzabalen errelebua hartuz, honek karguan 11 urte eman ondoren. Gorostiza, lehenengo presidente andrea da erakunde armaginaren 76 urteko ibilbidean, eta hiru presidenteorderen babesarekin kontaktuko du: Jose María Arrizabalaga (kirol eremua), Joseba Unamuno (ekonomia eremua) eta Mikel Larrañaga (eremu instituzionala).

**AEXA**  
OBRAS Y SERVICIOS. S.L.

**Lavado, planchado  
y repasado  
de ropa deportiva  
Desde 1970**



# ERREALAK AZKEN ORDUAN MAKILLATU DU DENBORALDI IRREGULARRA

*Rayo Vallecano eta Valencia taldeen aurrean azken bi jardunaldietan eskuratutako garaipenen eskutik, donostiarrek bederatzigarren postu duinarekin amaitzea lortu zuten.*

**Adolfo Marcos**

**E**rrealak azken orduan makillatu zuen denboraldi oso diskretu bat, gora-beheraz beterikoa, David Moyes azaroen kanporatua izateraino eraman izan zuena. Eu-

sebio Sacristáñen errelebuak neurri batean hobetu egin zituen, betidanik hasierako helburuetatik urrun mantendu izan arren, denboraldi hasieran Europara itzultzeko nahia berarekin partekatzen zuen talde baten zenbakiak. Jokin Aperribay presidentearen eskutik erakundeak fitxaketak egiteko orduan erakutsitako esfortzu ekonomikoa ez da nahikoa izan masa sozial baten ilusioa pizteko, Errege Kopan ere bere taldearen distiraz gozatzeko aukera izan ez duenez, final hamaseietan Las Palmas taldearekin neurtzean jadanik hasiera batetik hura galtzaile aldarrikatzean. Gutxienez, Rayo Vallecano eta Valencia taldeen aurrean eskuratutako azkeneko garaipenen bidez,



**ROBERTO OLABE, FUTBOLEKO ZUZENDARI BERRIA**

**A**zken lau urteak Aspire Akademy zuzendari modura jardunean eman ondoren, teknikari gasteiztarra bat etorri da organigrama txuri-urdinarekin.

donostiarrek urte beteko epean bederatzigarren postua eskuratu dute, epe horretako aipagarriena harrobiko jokalaririk ezberdinen bat-bateko ezarpenak izanik.

**La Gilda del Norte**  
*Eskuz eginda*

lagildadelnorte.com  
**900 10 16 12**

PRODUKTU NATURALAK LANTZEA  
**100%** NATURALA



# MIKEL OIARTZABAL: "ESPAINIAKO TXAPELKETA IRABAZI ZUEN EUSKADI LAGUN KUADRILA BAT ZEN"

*Mikel Oiartzabal (Eibar, 1997) euskal harrobiaren azken harribitxia da. Ezker finak sekulako agerraldia egin du gorengo mailan.*

**Haritz Gallastegi**

**O**nenen artera ailegatzea gutxi ez eta Realako izarretako bat izan da denboraldian zehar. Talde askoren agendan dago dagoeneko baina, oraingoz, futbolari gisa hobetzea baino ez dauka buruan.

**Zure kirol ibiblideko azken urtea aparta izan da. Denbora gutxian amets asko egi bihurtzeko aukera izan duzu. Ez dago askoz gehiago eskatzerik.**

Inork ez du pentsatzen denboraldia hasten denean denbora gutxian horrenbeste gauza gerta daitezkeenik. Kontua da gauzak etorri egiten direla eta pixkanaka-pixkanaka barneratzen joan beharra dago. Urte berezia eta polita izan da.

**Gazteetatik lehen talderako urratsa oso hilabete gutxitan eman duzu. Espero zenuen horren denbora gutxian jubenetan ariztetik munduko txapelketarik onenean jokatzera pasako zinela?**

Ez. Horrelako urratsa aurreikusterik ez dago. Baina aukerak eman dizkidaten neurrian nire buruan sinesten hasi naiz eta behin konfiantza hartuta gauzak aldatu egin dira. Pentsatzeko era aldatu egiten da. Gainera, taldekide berriak ezagutzen joan naizen neurrian eurekin dudaren harremana ere



aldatu egin da. Lagungarria izan da.

**Uste baino hobeto egokitu zara Lehen Mailara?**

Bai. Gorengo mailak asko eskatzen du, baina nahiko ondo hartu diodala neurria iritzi diot. Gorputzak ondo erantzun dit.

**Zertan nabaritu duzu aldaketa handiena?**

Gauza askoren batuketa da. Joan den denboraldian nire adineko edo gehienez urtebete nagusiagoak ziren jokalarien kontra aritzen nintzen. Denboraldion, berriz, hamabost urte gehiago duten futbolarien kontra neurtu behar izan ditut indarrak. Alde handia dago.

**Zure agerraldia ikusgarria izan da, baina oraindik hasiberri bat baino ez zara. Zertan uste duzu daukazula hobetu beharra?**

Arlo guztietan daukat hobetu beharra. Besteak beste, indarrak neurtzen ikasi behar dut. Zenbait

partidatan hilda ailegatu naiz amaierara. Esfortsuak noiz eta nola egin ikasi behar dut.

**Egun jokalaria ezaguna zara. Jarraitzaile guztiek dute zure berri. Baina Federazioan aspalditik ezagutzen zaitugu. Duela urtebete, besteak beste, Espainiako Txapelketa irabazi zenuen 18 urtez azpiko Euskadirekin. Nola gogoratzen duzu?**

Oso oroitzapen ona daukat. Realarekin gazteen mailako liga irabaztea lortu nuen eta Euskadirekin Espainiako Txapelketa. Selektzioa baino gehiago lagun talde bat ginen. Egun harremana mantentzen dut jokalaria askorekin. Zerbait hartzeko edo berba egiteko elkartzeko gara. Finean, niretzat hori da garrantzitsuenak.

**Zu, egun, ispilu zara gazte horietako askorentzat. Zuk lortu duzuna dute helburu. Hau da, gorengo mailan aritzea.**

Bai, baina bakoitzak bere bidea egin behar du. Lana egin ezkeror emaitzak lortzen dira. Poliki-poliki joan behar da.

**Urte luze eta intentsoa izan ostean txipa aldatu eta oporrak izatea ere eskertu duzu?**

Bai. Urte luzea izan da. Gauza asko gertatu zaizkit. Ahalegin fisikoa egiteaz gain, bestelako kontu askotan ere gauzak aldatu egin dira. Tentsioa pilatu egiten da. Oporrak indarberritzeko baliatu ditut.

**Euskadiko beheko mailetan aritutako zara. Hurrengo erronketako bat Euskal Selektzioan jokatzeko da?**

Bai. Baina ez dago nire esku. Behar ona eginez gero etorriko da. Baina gauzak ondo egin behar dira.



# DEPORTIVO ALAVES, LIGAKO TXAPELDUNA ETA 1. MAILARA IGOERA

*Deportivo Alaves jadanik  
berriro estatu mailako  
futbolaren elitean dago.  
Babazorroek, B 2. Mailan hiru  
kanpaina bete ondoren,  
Lehenengora itzuli dira  
txapeldun bezala.*

David Novo

Hurrengo kanpainan Euskadik lau ordezkari izango ditu Lehen Mailan -horrelakorik ez da gertatu azkeneko 84 urtetan- Deportivo Alaves taldearen igoera txalogarria dela medio, izan ere, eliteko bere tokia berreskuratu egin du, hamarkada bat geroago. Txuri-urdinak, 75 punturekin, A Bigarren Mailako txapeldun aldarrikatu dira, lehenengo txanda halaber Liga Adelante-ko lider bezala

amaitzean. Bigarren aldia da bere ibilbidean, Alaves taldeak Zilarrezko Kategoriako titulua eskuratzen duena, 1998an Mane

teknikaria aulkian zegoela irabazitako Ligaren ondoren. Jose Bordalasen taldeak, gol gutxien jaso zituena izanik, bere kategoria jauzia ziurtatu egin zuen astebeteko aurrerapenarekin, azken aurreko jardunaldian Numancia taldeari irabaztean eta gogo handiz ospatu zuen Mendizorrozan, ia 20.000 ikusleren aurrean, egun bat geroago, jadanik hiriko agintariekin batera, bere zoriona partekatzeke Gasteiz osoarekin, Andre Maria Zuriaren Plazan.



Harrera instituzionala txapeldunentzat/ DEPORTIVO ALAVES

# BILBAO ATHLETIC KATEGORIAZ JAITSI DA NAHIGABEZ BETERIKO IKASTURTE BATEN ONDOREN

*A Bigarren Mailako irauinaldia  
iragankorra izan da  
egunerokotasunean hurbil  
azaldu izan arren neurketa  
globalean mantentzetik  
urrun zegoen Bilbao Athletic  
batentzat.*

David Novo

Eta iritsi bezala joan egin zen. Liga Adelante txapelketako Bilbao Athletic taldearen iraupena urte betekoa soilik izan da.

Kumeek, lehenengo txanda klista bezala amaitu ostean, ezin izan zuten aldatu euren norabidea txapelketaren bigarren atalean eta B Bigarren Mailara jaitsi ziren, hain zuzen San Ma-

mes zelaian lehiatu zuten azkeneko partiduan, 38. jardunaldian, izan ere, estaldura hedatzeko obren eraginez, Alaves eta Tenerife taldeen aurrean zuri-gorriak lokal bezala aritu ziren Lasasarren.

Jasandako 26 porrot horietatik, 21 minimo batengatik gertatu zirenez, agerikoa zaigu Jose Angel Ziganda entrenatzailearen taldeak beti aurrerapena eman zuela, aurrez aurre jardunez, egunez egun. Hala ere, txapelketaren finalerako hilabete falta denean aukerarik gabe geratu izanak erakusten du bigarren talde zuri-gorria urrun ibili zela zenbaketa globalean salbatzeari dagokionez. Ere-muetan erakutsitako nolabaiteko irimotasun gabeziak, bai eraso unetan eta bai defentsakoetan, markatu egin zuten bere norabidea.



# EUSKALDUNEN KANPAINA BIKAINA KOPARAKO SAILKATUTAKO 4 TALDEREKIN ETA JAITSIERA BAKARRAREKIN

*Kategoriako 9 ordezkarekin, horietako lau (Barakaldo, Real Unión, Sestao eta Arenas) Kopan lehiatuko dira datorren urtean. Bakarra jaitzi zen, Portugalete.*

David Novo

**K**utsu gazi-goza utzi digu kanpaina honek zeinetan taldearen ia erdia Euskadiko jokalariek eratu zuten. Barakaldo, Real Unión, Arenas eta Sestao taldeek txartela eskuratu zuten hurrengo kopa ediziorako, lehenengo bientzat saria txikiegia izan arren. Amorebieta, Real Sociedad B eta Gernika ez ziren gehiegi larritu iraunkortasuna lortzeko orduan, aldiz Leioa sus-



Barakaldori Ligak ihes egin zion azkeneko jardunaldian

tapena lehiatu beharrean aurkitu zen jaitziera eragozteko III. Multzoko Olympic de Xátiva taldearen aurrean. Portugalete izan zen jaitzitateko talde euskaldun bakarra.

**URTE BIKAINA  
BARAKALDORENTZAT,  
BAINA SARIRIK GABEA**

**B**arakaldo nagusitu zen II Multzoko txapelketaren hein handi batean baina azken jardunaldian lidergoari uko egin zion deskontuko denboran, Gaztelaren gol batengatik astebete lehenago txapeldun aldarrikatzea ezinezkoa izatean. Movillaren tutoretzapekoek bere ibilbidetako A Bigarren Mailara igotzeko hamargarren play off txapelketan lehiatu ziren, bigarren postuarekin eta lehenengo txandan kanporatuak izan ziren laugarren batekin, Lleida, neurtzean (1-0 lurralde kataluniarrean eta 1-1 Lasasarren).

**REAL UNIÓN  
SUSTAPENIK GABE  
GERATU DA**

**R**eal Union taldeak, lehenengo txanda bosgarren postuarekiko 5 puntuko abantailarekin amaitzean, adorea galdu zuen kanpainaren azken txanpan eta laugarren postutik hirura amaitu zuen.

 Sport·designer


 grupo-campus

**OFERTA LANZAMIENTO  
19,50 €**

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en euskera y castellano.

Más información: [www.sport-designer.com](http://www.sport-designer.com)





# ZAMUDIO LEHEN ALDIZ NAGUSITU DA HIRUGARREN MAILAKO LIGAN ETA BRONTZEZKO MAILARA IGO DA

*Zamudiok, publikoaren eta prentsaren esanetan titulua eskuratzeko gogokoenen arteko bat izanik, pronostiko onak asebeste zituen: txapeldun aldarrikatu zen eta B Bigarren Mailara igotzea lortu zuen.*

David Novo

Zamudiok txapelketako menderatzaile nagusien zurrunaldia aprobetxatu zuen azkeneko kanpainetan (Arenas, Portu, Gernika, Leioa, Amorebieta...), lehenengo aldiz bere ibilbidean Hirugarren Mailako euskal taldearen Ligako titulua eskuratzeko. Gazituegaren jokalariaik torneoko 38 jardunaldietatik 31 jardunalditan liderrak izan ziren, lehenik eta behin

Balmaseda aurkariaren kontra, jarraian Lagun Onak taldearen kontra eta amaiera tartean, Bermeo taldearen kontra.

Bitxia izanik, hiru talde hauek aukietan mantendu ziren B Bigarren Mailarako igoera fasean. Ibon Etxebarrietaren taldeak sustapena txapeldun modura lehiatu zuen, multzo kantabriarreko lehen postuan zegoen Laredo taldearen kontra. Bikaitarrak 3-1 emaitzarekin nagusitu ziren joaneko partiduan, horrela euren kategoria jauzia ziurtatuz, San Lorenzon 1-0 galdu izan arren, itzuliko konpromisoan.

Bere igoerak eragotzi egingo du, gainera, Portugalen jaitsierak arraste bat eragitea, horrela Ondarroa Aurrera Erregionalerara jaistetik salbatuz. Aretxabaleta, Betoño El gorriaga eta Aurrera de Vitoria, aitzitik, Hirugarren Mailara jaitsi dira.

## BERMEO, LAGUN ONAK ETA BALMASEDA, PLAY OFF TXAPELKETAN

Bi talde bizkaitar eta gipuzkoar bat izan zituen lagun Zamudio txapeldunak, B 2. Mailarako igoera fasean. Beasain eta Vitoria, bestalde, atetan geratu ziren. Bermeok, bigarren sailkatuak, parekatuta amaitu zuen El Ejido 2012 taldearekin. Toño Vadilloren jokalariek 3-0 emaitzarekin galdu zuten lurralde almeriarrean, horrela, itzulera partidua irabazi izan arren (3-2) kanporatuak izan ziren lehenengo txandan. Zorte berdinekoa izan zen Balmaseda, laugarren postuarekin, izan ere, La Balugan gol batekin berdinketa lortu ostean, 2-1 emaitzarekin galdu egin zuen Murtzian Aguilas taldearen kontra; talde honek halaber irabazi egin zion Lagun Onak taldeari (1-0 Garmendipen eta 2-0 itzulera) Azpeitikoek Aviles taldeari irabaztea lortu ondoren, lehenengo txandako penaltietan.



Zamudio, Ligako txapeldun



Bermeo, txapeldunordea



Lagun Onak, hirugarren postua



Balmaseda play off txapelketara sartu zen



# SODUPE, AMURRIO ETA TOLOSA, TXAPELDUN ERREGIONALAK

*Sodupe (Bizkaia), Amurrio (Araba) eta Tolosa (Gipuzkoa), hurrengo ikasturtean Hirugarren Mailan lehiatuko diren euren lurralde mailako txapeldunak.*

**David Novo**

**S**odupe, maila erregional bizkaitar goreneko txapeldun bezala; Amurrio, arabarreko txapeldun bezala; eta Tolosa, gipuzkoarreko txapeldun bezala, jauzia egin dute kategoria erregionalera eta hurrengo kanpainan Hirugarren Mailako euskal multzoan lehiatuko dira. Hiru talde hauek hartzen dute, horrenbestez, Deusto, Vitoria eta Aurrera de Ondarroa taldeen errelebu, alegia joan den ikasturteko elite erregionalen lehenengo postuak eskuratu zituztenak eta jaitzieren ondorioz Aretxabaleta, Betoño Elgorriaga eta Aurrera de Vitoria taldeek utzitako postu hutsak betetzera datozenak.

Talde tartekatua Ohorezko garaipena eskuratu zuen, bigarren postuarekiko zortzi puntuko abantailarekin. Andoni Galianoren jokalariek, gainera, txapelketa bizkaitarreko 14 ediziotan gol gehien markatu dituen taldekoak izateko ohorea dute, egungo izendapenarekin, puntuazioaren erregistro onenetik bost puntura geratuz. Bestalde, Amurrio maila nazionalera itzuli da kategoria galdu zuenetik gutxi gorabehera urte bete iragan denean, 81 puntuko huskeria lortu ostean, segidako postuak baino zazpi gehiago. Tolosa taldeak, bestalde, bere txapelketa ziurtatu zuen azkeneko jardunaldian, puntu batengatik, bere azkeneko partidua galdu izan arren.



Sodupe (Bizkaia)



Amurrio (Araba)



Tolosa (Gipuzkoa)



# EUSKAL SELEKZIOA NAGUSITU ZAIO KORSIKAKO SELEKZIOARI PENALTIEI TXANDAN

*Euskal konbinatuak berdinketa eskuratu zuen bigarren atalean Markel Bergarak markatutako tanto bati esker eta jarraian bere aurkariari gailendu zitzaion hamaika metroko distantziatik.*

**Adolfo Marcos**

A jaccio udalerriko Ange Casanova estadioa izan zen Korsika eta Euskal Selektzioa taldeen arteko nazioarteko lagunarteko partiduen eszenatokia, eta selektzio biek kausa komun bat defendatzen dute: ofizialtasunaren onarpena. Partidua lehiatzeko data konplexuen eraginez, Jose Mari Amorrortu eta Mikel Etxarri teknikariak eragotzi egin zitzaizkien euren jokalariek erreferente batzuekin kontatu ahal izatea, izan ere, Aduriz, Williams, Lekue, San José eta Oyarzabal Espainiarekin kontzentratuta zeuden eta bestalde, Erreal eta Eibar Estatu Batuetako itzuli batetik iritsi berriak ziren. Horrez gainera, Alaves, Ligako txapelketa distiratsua, eta Osasuna oraindik Liga Adelante txapelketa lehiatzen aurkitzen zen. Zailtasun horien gainetik, hiru kolorekoak beste behin ere talde lehiakor bat konfiguratu zuen, halaber sentsazio oso onak eskaini zituen aurkari baten aurrean maila erakustea lortuz. Izan ere, anfitrioiak, euren lerrotan 1. Ligako hainbat futbolarekin kontatuz, menderatzaileak izan ziren lehenengo atalean, aurrera egitea lortuz, Santelliren tanto bakartiari esker.

Amorrortu eta Etxarri atsedendian ezartzera etorri ziren

aldaketen ondorioz, berehala antzeman ahal izan zen bilatutako eragina. Norgehiagoka berreskuratu zenetik bi minutura, Markel Susaetaren bandako sarrera bikain batek Markel Bergararen burukada erabakigarri bati bidea eman zion, horrela markagailuan berriro berdinketa nagusituz. Gol honek hegoak eman zizkion Euskadiri, ekimenaren jabe izateko bigarren atal honetan, eragotzi ezin izan arren araudiaren arabera denbora berdinketarekin amaitzea.

Ondorioz, penaltien jaurtiketari ekin zitzaion txapelduna erabakitzeke eta hor euskaldunek kortsikarrek baino hobeto asmatu zuten. Modestok lokalen lehenengo jaurtiketa huts egin zuen eta Mikel Gonzalezek ere bisitariena huts egin zuen. Azkenean, Riesgok geratu egin zuen Cahuzac jokalararen jaurtiketa eta Bergarak ez zuen gupidarik izan.



**KORSIKA:** Leca, Coulbaly, Modesto, Bocognano, Poggi  
**EUSKAL SELEKZIOA:** Iraizoz (Riesgo, 46'), Capa (Zaldu Merino, 61'), Zurutuza, Berchiche y Eraso.  
**GOLAK** 1-0 min. 20 Santelli y 1-1 min. 48 Bergara. **Pe** gol, Berchiche gol; Satelli gol, Sabin Merino gol; Piera  
**ÁRBITROA:** Willian Laviz. **ESTADIOA:** Ange Casanova d

## CARLOS GURPEGI OHORETUA IZAN ZEN IRAGARRITAKO BERE AGURREAN

Euskadiko Futbol Federazioak bat egin zuen Carlos Gurpegiren izenean, jarduneko futboleko erretiratzeagatik, ospatutako omenaldiekin. Andosillako jokalariek plaka oroigarri bat eta esker ona jaso zituen, oraindano hiru kolorekoarekin erakutsitako bere konpromisoarengatik. Gurpegi guztira 6 lagunarteko partidutan lehiatu da, horietan gainera gol bat sartzea lortuz (Venezuelaren aurrean).



Gurpegi eta Elustondo presidentea



## 15 #KORSIKA-EUSKADI



ggi, Cahuzac, Pierazzi, Lippini, Cabella, Cavalli, y Santelli.

ldua, 46'), Elustondo (Ansotegi, 46'), Gurpegi (Mikel González, 46'), Garrido (Susaeta, 46'), Iturraspe (Bergara, 46'), Rico (Dani García, 46'), Xabi Prieto (Sabin

**Penaltiak:** Modesto falla; Mikel González falla: Cavalli gol, Eraso gol; Romain gol, Susaeta gol; Aine gol, Zurutuza gol; Cabella gol, Dani García gol; Coulbaly  
erazzi gol, Zaldúa gol; Cioni gol, Ansotegi gol; Cahuzac falla, Bergara gol.  
a de Ajaccio



# ASTORE

## NUEVA EQUIPACIÓN EUSKAL SELEKZIOA





## EUSKADI KADETEA DURANGON OSPATUTAKO ESTATUKO TXAPELKETAREN AMAIERA FASERA IRITSI DA

### AGUR DOBLETEARI

Euskadiko taldeek ezin izan zuten errepikatu aurreko 2015-16 denboraldian eskuratutako dobletea.

*Ezbeharrarekin egin zuen topo Oskar Tabuenkaren taldeak, Estatuko txapelketako finalean sartzeko zorian, baina ezin izan zuen bete bere nahia, zorigaiztoko amaiera ekarriko zuen penaltien txanda batean.*

**Raúl A. Collantes**

Euskadi Sub-16 sailkapen bikaina lortzera heldu zen Autonomia Selektzioen Txapelketa Nazionaleko Fase Finalerako, hain zuzen joan den maiatzak 20 eta 22 artean Durangon lehiatu zenerako. Oskar Tabuenkaren taldeak garaipen guztiak lortu zituen lehenengo bi fasetan, jokaturako lau partiduetatik laurak irabaztean.

Euskadiko selektzioa horrela txapelketako finalerdietan sartuko zen, Madrilekin, Aragoierekin eta Valentziako Erkidegoarekin batera. Gure jokalariak, finaleko plaza baten aldeko borrokan valentziarrekin berdinduta geratu ondoren, Fase Finala euren zaleen aurrean Durangon lehiatzeko pizgarriarekin kontatzen zuten.

Partidua, Tabiran lehiatua, gure aurkariak lehenengo minutuan aurrea hartzeko eginiko ahaleginarekin abiatu zen. Euskadi berdinketara iritsi zen bigarren denboran, baloi geratuarekin eginiko jokaldi baten eskutik eta araudiaren araberako denbora 1-1 emaitzarekin amaitu zen. Penaltien txandak epaia eman zuen eta amaiera ezin krudelagoa izan zen anfitrioientzat. Valentziak lehenengo biak huts egin zituen, baina hala ere 3-3 emaitza lortu zuen eta bat-bateko heriotzan, Euskadik sailkatzea lortzeko bi jaurtiketa alferrik galdu zituen. Valentzia nagusitu zen, ondoren finalean Madrilekin galtzaile suertatuz.



Euskadiko selektzio jubenila



Euskadiko selektzio kadetea

## VALENTZIA ERE BORREROA IZAN ZEN JUBENILETAN

Joan den abenduan eta otsailean lehiatutako bi lehenengo faseak arrakastaz gainditzea lortu ondoren, Euskadiko selektzio jubenila Estatuko Txapelketa Fase Finalerako sailkatu zen Alcalá de Guadaíran, Sevillan, joan den apirilean ospatutako partiduan. Euskaldunak Valentziarekin neurtu ziren final nagusiko plaza batengatik baina 3-0 galdu zuten, zorte hobea merezi izan zuten partidu batean. Emaitza mardulegia izanik, gureak bederatzirekin amaitzea lortu zuen.

# EIBAR, KOPA JUBENILA ETA DANOK BAT, KADETEA

*Kopa txapelketekin amaiera bikaina eman zitzaion 2015-16 denboraldiari bi talderekin, Eibar eta Danok Bat, kategoria bakoitzean nagusitzeraz helduz.*

**Raúl A. Collantes**

**E**ibar, kategoria jubentean eta Danok Bat, kategoria kadeteen, izan dira 2015-16 kanpainako Euskadiko Kopako txapelkun aldarrikatuz amaitu duten talde biak.

Eibar nagusitu zen, joan den ekainaren 11n, larunbata, Unben ospatutako jubentien Finalean. Talde armaginarik beste finalistaren lekukoa jaso zuen, alegia Danok Bat taldearena, bitxia bada ere, iazko txapelketa izanarena. Partidua, oso berdindua eta lehiatua, markagailuko 1-1 berdinketarekin amaitu zen. Luzapenak ez zuen ezer ebatzi eta penaltien txandari ekin behar izan zitzaion, txapelkunaren izena ezagutzeko. Gipuzkoarrak saria eskuratzera heldu ziren, jaurtiketen txanda euren alde ebaztean, 4-3 emaitzarekin.

Bestalde, gauzak ongi atera zitzaizkion Danok Bat taldeari kadeteen Finalean, Maionan egun berean eta ordu berean ospatuan. Izan ere, Bilboko joko-eremu horretako talde biak izan ziren partidu erabakigarria eskuratu zutenak. Santutxu-Danok Bat derbi lokal erabakigarria, titulu bat jokatzen zuena. Olarizu eta Romo atzean geratu ziren finalerdietan. Partidua-ren emaitza 0-3 izan zen, Danok Bat taldearen alde, gorritzkoen hasiera bikainari aurre egin eta hil ala biziko erasoan jardun ondoren.



Eibar jubentia, Euskal Kopako txapelketa



Danok Bat kadetea, Euskal Kopako txapelketa

## ATHLETIC CLUB TALDEAK LIGA IRABAZI DU OHOREZKO JUBENTIAN

**A**thletic Club taldea Ligako txapelkun aldarrikatu zen kategoria jubentil gorenean. Gorenera itzuli da Errealaren nagusitasuna bi urtekoan izan ostean. Zuri-gorrien jarduera bikainak ere erreplika izan du Euskal Liga Kadeteen, zeinetan kumeez ere titulua Lezamara eramango zuten, ageriko nagusitasunarekin. Liga txapelketa osoan zehar, bi berdinketen eta porrot baten ondoren soilik amore eman zuten, horrez gainera 30 partidutan 165 gol kopuru itzela lortuz. Beste bi autonomia kategorietan ere txapelkun bizkaitarrak nagusitu ziren. Santutxu garaile aldarrikatu zen Liga Nazional Jubentian eta datorren urtean Ohorezko Jubentian lehiatuko da. Euskal Liga Jubentian, podiumeko lehenengo kutxa Loiola Indautxu taldearentzat izan zen, Beasain eta Santutxu B taldeen aurretik amaitzean.



# EUSKADI SUB'16 FINALAREN ATETAN GERATU DA ESTATUKO TXAPELKETA AUTONOMIKOAN

MAILA BIKAINA

Euskal futbolaren harrobia aberatsa eta kalitatezkoa da.

*Selekzio biak aurrez aurre jardun ziren selekzio autonomikoen estatuko txapelketan. Gure selekzioen ilusioa eta kalitatea etorkizunerako bermeak dira.*

**Txemi García**

Euskadi sub'18 eta sub'16, beste behin ere, euren goi mailako lehiakortasun maila erakustera etorri ziren, selekzio autonomikoen txapelketan.

Txusmi Rodríguezen sub'16 taldea izan zen urrunena heltzeko gaitasuna erakutsi zuena, joan den ekainaren 10ean, Torremolinosen (Malaga) ospatutako Amaiera Fasean zapore gazi-gozaarekin geratuz. Izan ere, jokalarik gazteak finalerdietarako sailkatu ziren, zeinetan Madrilgo taldeak penaltien txandan kanporatzea lortuko zituen, araudiko denboraren amaieran 1-1 emaitza eskuratzean. Kategoriako talde onenekin neurtzeko, Rodríguezen jokalaria nagusitu egin ziren lehenengo fasean, joan den abenduan Rocesen (Gijón), Asturias (1-0) eta Cantabria (0-3) taldeekin neurtzean, aldiz bigarrenetan, Cáceres eta Sierra de Fuentes eremuetan, berdindu egin ziren Extremadurarekin (2-2) eta gailendu egin zitzaizkion Balears taldeari (2-0). Zorte okerragoa izan zuen sub'18 taldeak, Juanjo Arregui entrenatzailearen eskutik, izan ere, finalerdietatik kanpo geratu zen, garaitu gabeak izatea lortu arren. Lehenengo fasean, onenak berdindu egin ziren Asturiasekin (1-1) eta gol sorta sartu zioten Kantabriari (0-5). Baina bigarrenetan, Extremaduraren aurreko berdinketa (0-0) eragozpena bihurtuko zen. Gailendu egin zitzaizkion (3-1) Balearrik taldeari, ez ordea behar adina.



Euskadi sub'16, fase finalean



Euskadi sub'18, lehenengo fasean

## EUSKADI SUB'18 BERE MAILA ERAKUSTERA DATOR TORNEOAN

Euskadi sub'18 kategoriako hautatzailea, Juanjo Arregui, eta Euskadi sub'16 kategoriakoa, Txusmi Rodríguez, azpimarratzera datoz txapelketan zehar, bere taldeen potentziala eta kalitatea, gure lurraldea futbol femenino Nazionalen potentzia bat dela erakusteko. Banakakoa zein kolektiboa den talentu bat, torneooko fase guztietan azpimarragarriak izanik jokalarik guztien arteko lagunarte giroa eta ilusioa.





Lehoi femeninoek euren bosgarren Ligako titulua eskuratu dute eta txapelketako ohoratuenak dira

**KOPA, ZORTE  
TXARREKOA ATHLETIC  
ETA ERREALA  
TALDEENTZAT**

**L**igako euren ibilbide bikainen ondoren, bilbotarrak eta donostiarrak kanporatuak izan ziren kopa torneoko final laurdenetan, Levante (0-2) eta Barcelona (1-5) taldeen aurrean, hurrenez hurren. Zartada honek egiaztatzen du k.o.-ren torneo zorte txarrekoa izan dela biezat baina ez du kaltetu euskal taldeen ezohiko kanpaina. Lehoi femeninoek euren bosgarren Ligako titulua eskuratu dute eta txapelketako ohoratuenak izan dira.

# ATHLETIC KLUBAK BERE BOSGARREN LIGAKO TITULUA ESKURATU DU

*Hiru euskal taldeen denboraldi bikaina futbol femeninoaren elitean. Athletic taldearekin bat egin zuten Errealaren kanpaina bikainak eta Oiartzunen salbazioak.*

**Txemi García**

**L**ehen Mailako futbol femenino nazionalen Athletic Klubak eskuratutako bosgarren Liga izan zen euskal taldeen pizgarri nagusia. Zurigorrien arrakastaz gainera, ikusi ahal izan genuen nola Errealak eta Oiartzunek goi maila erakutsi zuten, urte hasieran ezarritako helburuak erraz eskuratzea lortuz. Bilbotarrek lortu zuten joan den ekainaren 5ean bere tituluen poker bikoitza, estatuko kategoria goreneko ohoratuenak izatera helduz. Joseba Agirrerren taldeak

Bartzelonaren presioari aurre egin zion, 12 jardunalditik aurrera lider izatera iritsi ondoren. Aste bakoitzaren erroka bat bihurtu zen lehoi femeninoentzat eta bere indar mentala erakutsi zuten segidako hamar garaipenekin, garaipenoihua botatzera heltzeraino. Urtea Bizkaian bikaina izan bazen, Gipuzkoan ere gozagarria gertatu

zen Errealarekin eta Oiartzunekin. Txuriurdinek jauzi kualitatibo bat eman zuten euren errendimenduari dagokionez. Iraunaldia lortzeko une txarrak iragan ondoren, Igor San Miguelen taldekoak Errealaren Koparako sailkatzea lortu zuten. Bestalde, Jon Alkortaren jokalariek elitera itzultzeko salbatzea lortu zuten.



Errealak eta Oiartzunek hobera egin dute



## EUSKAL TALDEEN JARDUERA BIKAINA BIGARREN MAILAN

*Euskadiko zortzi klub gailendu ziren futbol femeninoaren Zilarrezko kategorian. Liga gero eta lehiakorrago batek eurengandik onena eskatu zien.*

**Txemi García**

**A**thletic B, Añorga, Aurrrera Vitoria, San Ignacio, Mariño, Eibar, Pauldarrak eta Leioako taldeek, hurrenkera honekin sailkatuta,



Urte gogorra gurentzat

### LEIOAKO URTEKO GURUTZEA DA

Sarrinaren taldea izan zen iraunaldia defendatzearen aldeko borrokan kaltetuena. Leioarrak txapelketan jarraitzeko aukerakin mantendu ziren, baina azkenean jaiste suertatu zitzairen.

osatu zuten euskal ordezkaritza Bigarren Mailako II. multzoan. Filialak hirugarren postua eskuratu zuten eta gainerakoek tarteko guneagatik eta jaiste eragozteagatik lehiatu behar izan ziren. Beheko postuetan eibartarrak, industrialak, in extremis salbatu ziren, baina leioarrak ez. Bitartean, Euskal Kopan, Añorga titulua eskuratzera heldu zen Finalean Eibarren kontra (1-1) penaltien tandan.

## GASTEIZKO NESKAK DA EUSKAL LIGAKO TXAPELDUN MEREZIA ETA IGO EGIN DA

*Euskal Ligak denboraldi interesgarri bat eskaini zuen, zeinetan Gasteizko Neskak gainerakoekiko gailendu egingo zen. Betoñoren taldeak bilatutako arrakasta bat.*

**Txemi García**

**E**uskal Ligako laugarren edizioak, Gasteizko Neskak taldea utzi zigun txapelketako menderatzaile bezala, titulua eta dagokion Bigarren Mailarako igoera lortzean. Gasteiztarrek urrats bat gehiago eman zuten euren



Gasteizko Neskak, txapeldun

errendimenduan, iazko denboraldian hirugarrenak izan ostean. Betoñoren taldeak ibilbide bikaina garatu zuen, porrot bakarrarekin eta balizko 99etatik 79 punturekin amaitu zuen, golegile nagusia (92) izatera helduz eta tanto gutxien jaso zituena (18) izanik. Jarraian geratu ziren Arratia, hirugarren jardunaldian liderrari gailendu zitzaion bakarra, eta Bizkerre. Biak borrokatu ziren, baina kanpainaren une erabakigarrietan txapeldunaren potentzialaren aurrean amore eman zuten. Saikapearen azpialdean arrasteek, Leioako taldearen amaierako jaitsieragatik, kategoria salbatzeko agonia-borroka bat markatu zuten. Santurtziko Athletic Lagunartearekin, faroltxo gorrirako aukerarik gabe, borroka ondorengoan artean zentratu zen: Lakua, Oiartzun B eta Berriotxo. Bilbotarrak azken jardunaldietan erreakzionatu zuten, segidako bi garaipenekin, euren arerio zuzenean aurrean, Euskal Ligan beste urte betez jarraitzeko. Horrela, filiala eta arabarrak Erreionalera jaitsi ziren.



# KIMUEN SELEKZIO FEMENINOA GALTZAILE ESTATUKO TXAPELKETAKO FINALAURREKOETAN

*Euskadiko kimuen taldeak gogoz lehiatu ziren estatuko txapelketan. Talde femeninoa izan zen ibilbidean urrunena iritsi zena.*



Kimu maskulinoa

**Raúl A. Collantes**

**E**uskadiko talde femeninoa, kategoria femeninoan, finalaurrekoetara iritsi zen joan den apirilaren 22tik 24ra bitartean Almerian ospatutako Autonomia Sele-



Kimu femeninoa

ziotako Txapelketa Nazionalan. Hiru koloreko taldeko neskek txapelketaren hasieran B Multzoa eratu zuten, bi garaipenekin nagusitu egingo zena, Gaztela Mantxaren aurrean, eta bi berdinketekin, Murtziaren eta Gaztela Leonen aurrean. Euskadi final laurdenetan neurtu zen Asturiasko Printzerriko taldearen aurrean eta garaipena euskaldunentzat izan zen, garaipena 1-0koa izanik, finalaurrekoetara sartzeko. Extremadura izan zen ondorengo oztipoa baina taldeak 1-2 emaitzarekin galdu zuen Extremadurako aurrean, final nagusitik urrats batera geratuz.

Zorte pixka bat gutxiago izan zuen talde maskulinoak joan den maiatzaren 12tik 15era bitartean Murtzian ospatutako Estatuko txapelketan. Gogor saiatu izan arren, gure kimuak ezin izan ziren lehenengo fasetik haratago joan, bere multzoan hirugarren geratuz. Gailendu egin ziren Asturias taldearekin 3-1 emaitzarekin, baina berdinduta amaitu zuten Kantabriarekin eta Murtziarekin eta galdu egin zuten Valentziarekin.

Ez zen nahikoa izan.



AGENCIA DE VIAJES - TAXIS - AUTOCARES  
C/ Monseñor Estenaga, 10  
Tels.: 945 259 300 / 945 203 215  
01002 VITORIA-GASTEIZ

AGENCIA DE VIAJES

TAXIS DE LUJO

AUTOCARES HASTA 80 PLAZAS



C/ Monseñor Estenaga, 10 Vitoria-Gasteiz



# EUSKAL SELEKZIOA ETA KATALUNIA AURREZ AURRE

*Euskal Selektzio femeninoak 5-1 galdu zuen, eta maskulinoak ere galdu egin zuen (5-3) Kataluniako lurraldera lekualdatu zenean.*

**Iker García**

Areto Futboleko bi euskal selektzio absolutuen asebetegarritasuna agerikoa da, joan den ekainaren 19an euren homonimo kataluniarrekin neurtu ostean. Jardunaldiari partidu femeninoarekin eman zitzaion hasiera, norgehiagoka horretan kataluniarrek 5-1 emaitzarekin gailendu zirenean, Iñigo Martíneze entrenatzailearen eskutik, partiduan sartzeko zailtasunak izan arren. Atsedendian, markagailua 0-0 zegoen, eremu bietako aukerak islatuz. Berriz itzultzean, ezusteko ekintzen ondoriozko bi golek aurretik jarri zituen lokalak Euskadiren aurrean, 3-1 emaitzarekin, atezain-jokalarien arrisku jokaldien eskutik, beste bi gol sartzera heltzeko.

**EUSKADI:** Itzi, Txitxo, Sarah, Ainara eta Maite (1) –hasierako bostekoa-. Bea, Eva, Esti, Miriam, Amaia, Marta eta Ane.

Selektzio absolutu maskulinoari dagokionez, Juanan Rodríguezen jokalariek amaiera arte izan zituzten aukerak. Izan ere, Euskadi aurretik ibili zen markagailuan bi alditan, 0-1 emaitzarekin eta 4 minutu falta zirenean lortutako 2-3 emaitzarekin. Pixka bat geroago hirugarren gola sartu zuten eta nekea agerikoa izan zen hiru koloreko taldeko jokalarientzako, jadanik erreakzionatzea ezinezkoa izateraino.

**EUSKADI:** Edu, Labaka, Rober (1), Jonatan eta Alex –hasierako bostekoa-. Montxo, Treviño (1), Asier, Javi, Montxi, Andoni (1) eta Mollor.



Euskal Selektzioa senior maskulinoa



Euskal Selektzioa senior femeninoa

## ENTRENATZAILE BIAK, MAILAREKIN ASEBETETA

Bi porrot horiez haratago, talde bietako hautatzaileek asebetegarritasuna erakutsi zuten euren jokalariek maskulinoen eta femeninoen jardueragatik. “Emaitzak ez du islatu partidua. Arriskua eragin dugu estrategian eta talde jardunean aritu gara, atezain-jokalariekin sufritu egin izan arren”, onartzen zuen Iñigo Martínez talde femeninoaren teknikariak. Juanan Rodríguez selektzio absolutu maskulinoko entrenatzailearentzat, balorazioa erabat positiboa da. “Esfortzu handi bat egin da eta jokalariek guztiek arima jarri dute, euren potentziala erakusteko gogoz. Selektzio euskaldun biren arteko elkarbizitza oso ona izan da eta egin beharreko autokritika da hedapena deitoragarria izan dela eta partidu hauek ez direla batere nabarmendu”, kritikatu zuen.



# Ibéricos deluxé

Delicatessen

ESPECIALISTAS  
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS  
(BODAS, COMUNIONES...)



Tienda situada en  
San Sebastián (Donostia)  
Calle NARRIKA nº 31 Parte Vieja  
Telf.: 943 423 849

[www.ibericosdeluxe.com](http://www.ibericosdeluxe.com)



# AYESTARAN

**DONOSTIÁN**

31 DE AGOSTO, 16  
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16  
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17  
Tf.: 943 420 919



**JOYERÍA AYESTARAN  
CON EL DEPORTE  
EUSKALDUN**



## ZIERBENA DA LIGAKO ETA SUSTAPENeko TXAPELDUNA BAINA EZ DU LORTU BABESA BIGARREN MAILARA JAUZIA EGITEKO

*Zierbenak Ligako titulua eta bulegoetan ebatzi ezin izan duen igoera bat eskuratu ditu. Bestalde, Labastida kategoriaz jaitsi da.*

**Iker García**



Zierbena, Ligako txapelduna

**Z**ierbenak Ligako titulua eskuratu du, baita Bigarren Mailara igo-tzea ere, kanporaketan Iberia Toscal taldeari irabazi ondoren.

Hala ere, babes ekonomikoaren gabeziak eragotzi egin du jauzi hori egin ahal izatea, beraz,

hurrengo denboraldian B Bigarren mailan jarraituko du. “Galipoak” dira hurrengo Errege Koparen ediziorako sailkapena eskuratu duen euskaldun bakarrak, multzo bakoitzeko hiru lehenengo postuentzat izaten dena. Talde bizkaitarrak, txanda osoa galdu gabe

osatzeko zorian ibili arren, ez zuen lortu, bere ‘pizti beltza’ den San Juan taldearen aurrean galdu ondoren.

Bosgarren postua eskuratu du Debabarrena Kontzeptuak, jardunaldiz jardunaldi hobetuz joan izan arren, tarteko gunean geratuz, lehenengo postuetatik urrun.

Bitxia bada ere, Gipuzkoako taldea izan da txapelketa osoan berdinketarik gabeko partiduak ospatu dituen bakarra.

Jadanik gainezka dagoen tarteko gunean, puntuen alde handirik gabe (8 talde, euren arteko 7 puntuko aldearekin soilik), beste hiru ordezkari euskaldun daude: Ibarra, Gasteizko Aurrera eta Santurtzi, azken biak azken jardunaldiraino sufritzen aritu izan badira ere, talde guztien arteko muturreko berdintasunaren eraginez.

### **LABASTIDA, JAITSIERA**

B Bigarren Mailako denboraldiko alderdi negatiboa Labastidaren jaitiera izan da, Ligako zoritxarreko azken jardunaldiaren ondoren, izan ere, 6 talde euren artean bereiztea eragin du 2 puntutatik soilik.



**BILBO LEHEN MAILARA IGOZTEKO ZORIAN**

**B**igarren Maila feminoan, Bilbo eta Ordizia Bigarren Mailara itzuli dira, bere jaitsieraren ondoren eta biek lehenengo postuak bete dituzte. Bilbo txapelduna izan zen eta gol batengatik ez du lortu sustapenera igotzea; aldiz, Ordiziak hirugarren postua eskuratu zuen, igotzea lortu duen Txantrea batekin berdinduta. Stilo Kirol taldeak hobera egin du.

## LASKORAIN TITULUA ERREPIKATZERA DATOR HIRUGARREN MAILAN ETA OTXARTABE NAGUSITU DA EUSKALDUNEAN

**L**askorain talde gipuzkoarra beste behin ere txapeldun aldarrikatu da Hirugarren Mailan, baina aurreko denboraldian ez bezala, titulu honek zuzeneko igoera ekarri dio eta horrez gainera amaieraraino sufritzen aritu da, izan ere, Liga zabalik egon da azken aurreko jardunaldiraino, lehenengo posturako hautagai ezberdinekin. Bestalde, Euskal Ligan, titulua eskuratu duena kategoriako bere lehenengo denboraldian benetako menderatzailea bihurtu den Otxartabe taldearentzat izan da. Berarekin batera doaz Hirugarren Mailarako bere jauzian denboraldi honetan gorantz zihozten beste bi talde: Zalditxo de Araia eta Muskiz gipuzkoarrak.



## TITULUA IDIAZABAL FEMENINOARENTZAT, CALASANZ JUBENILARENTZAT ETA IBARRA KADETEARENTZAT

*Gipuzkoako Idiazabal eta Ibarra taldeak txapeldun aldarrikatu ziren kategoria femeninoetan eta kadeteetan, aldiz Calasanz talde arabarrak titulu jubenila eskuratu zuen.*

**Iker García**



Ibarra kadeteak titulu ospatu du

**I**diazabal taldea gailendu zitzaien Kluben Euskal Kopan Sasikoa taldeari 3-0 emaitzarekin eta euskal txapeldun femeninoa aldarrikatu zen. Jube-

niletan, titulu Calasanz taldearentzat izan zen, Egintza (bigarrena) eta Lagun Onak taldeekin bi partidu irabazi ondoren. Amaitzeko, kadeteetan, titulu Ibarren-

**GIPUZKOA GARAILE  
ALDARRIKATU DA  
JUBENILEAN ETA  
GAINERAKOAN, BIZKAIA**

**H**iru lurraldekoak Heuren hiru selekzioekin (femeninoak, kadeteak eta jubenilak) lehiatu ziren eta tituluak Bizkaia eskuratu zituen kategoria kadeteetan eta femeninoetan, aldiz jubeniletan, titulu selekzio gipuzkoarentzat izan zen, Bizkaia irabazi ondoren, partidu zirrargarri batean. Selekzio guztiek goreneko maila erakutsi zuten.

tzat izan zen, penaltiekin gailentzea lortuz Zierbena taldeari, araudiaren arabera berdinketarekin (1-1) amaitu zen emozioz beteriko partidu interesgarri batean.

# Goco Tour



### AUTOCARES

Bº Arregui  
Polígono Cóndor  
Edificio C  
48340 AMOREBIETA

Tfno.: (0034) 94 630 82 50  
Fax: (0034) 94 630 85 10

E-mail: [gocotour@gocotour.com](mailto:gocotour@gocotour.com)

[www.gocotour.com](http://www.gocotour.com)

- Viajes NACIONALES / INTERNACIONALES
- Todo tipo de servicio en autobús
- Transporte: Escolar, Bodas, Congresos, Celebraciones, Etc.
- Vehículos de: 10, 18, 22, 27, 35, 50, 55, 59, 71 plazas
- Vehículos adaptados para P.M.R.  
(Personas Movilidad Reducida)
- Servicio Privado Taxi: Lujo y 24 horas

# ASTOREK JANTZIKO DU EUSKAL SELEKZIOA 2020RA ARTE ETA EUSKADIREKIN MENDE LAURDENA GAINDITU DU

*Euskadiko Futbol Federazioak eta Astore kirol markak kirolaren aldeko pasioaren balore berdinak, jokabide egokia eta euskal tradizioa partekatzen dituzte.*

baina hiru kolorekoak Astore kamisetan jantzi zuen lehenengo partidua Atotxaren klausurakoa izan zen, 1993eko ekainaren 22an. Euskal firmak multzoko talde ezberdinetako jokalaria eta teknikariak jantziko ditu, bai joko-eremuan eta

bai honetatik kanpo. Hitzarmena, zeinekin “Astore markaren errotze sentimenduaren eta kirol tradizioaren aldeko apustua berretsiko den, eliteko kirola teknologia aurreratuarekin hornitzen jarraitzearen aldeko apustuan islatzen da”, adierazi du Jesus Anduaga Ternua Group-eko Aholkulari Ordezkaririk eta Luis Maria Elustondo Federación Vasca de Fútbol-Euskal Futbol Federazioko Presidenteak, bide batez adierazteko Astore “mantendu egiten dela eta Euskal Selektzioarekin eta Euskadiko Futbol Federazio honekin kolaboratzen jarraitzen duela, bihotzez gure esker ona merezi duen Euskal Herriko kirolaren aldeko bere konpromisoa eta maitasuna erakusteko keinu batekin”.

**David Novo**

**E**uskadiko Futbol Federazioa eta Astore adostasun batera iritsi dira euren arteko batasuna 2020raino hedatzeko, horrela bien arteko harremanaren mende laurdena gainditzea lortuz. Zehazki, lehenengo kontratua 1994ko urriaren 4an sinatu zen,



Jesus Anduaga eta Luis Mari Elustondo

## ATHLETIC CLUB, BIGARREN COCA-COLA KOPAN

**A**thletic Kluba txapeldunordea aldarrikatu zen klubaren araberrako Coca-Cola Kopako kadete mailan, Sevillaren aurrean 1-2 galdu ostean. Kumeak titulua eskuratzera heldu ziren Bansas taldearen aurrean 4-1 garaipena eta Gazte Berriak taldearekin 1-1 berdinketa eskuratu ostean, Torremolinosen (Malaga) ospatutako fase finaleko taldeen txandan. Joan den ikasturtean, bilbotarrak halaber hurbildu ziren saria eskuratzera, baina orduan finala jokatzeko atetan geratu ziren.

## LEZAMAK JOKO-EREMU BERRIAREKIN KONTATUKO DU

**L**ezamako 8. zelaiko Lobrak jadanik errendimendu bete-betean aurkitzen dira, irailerako amaituko direlakoan. Jokoreremu berria, belar artifizialekoa eta 4,5 milioi euroko kostuarekin, egungo parkingaren gainean ezarrita dago. Bestalde, 305 plazako edukierako aparkalekua lurpekoa izango da. Gainera, 800 ikusle inguru barne hartuko dituen harmaila eraikiko da.

## ZUBIETAKO ZAZPIGARREN JOKO-EREMUA, PREST

**E**rrealak jadanik erabilgarri dauka lehenengo taldearen entrenamenduetarako belar naturalzko zelai berri bat, ezaguri hauetako laugarrena, instalazio errealistetan dauden zazpietatik. Uda honetan, Jose Luis Orbegozoren zelaia aldatu egingo da lehen aldiz, Zubieta eratu zenetik; z6 eremuan harmailaren estaldura partziala garatuko da eta bestelako ekintza arinago batzuk gauzatuko dira.



# El placer de desplazarse

VEHÍCULOS CON CONDUCTOR



Automóviles de alta gama



Idiomas  
Servicio 24 horas

Tel.: 943 39 38 48  
Donostia-San Sebastián  
[www.vallinagrupo.com](http://www.vallinagrupo.com)

surne**vida**



**Surnevida,  
una buena jugada**

**¿TIENES HIPOTECA?  
¿Y UN SEGURO DE VIDA ASOCIADO?**

**AHÓRRATE MÁS DE  
UN 25% DE DESCUENTO**

**Hay muchas jugadas,  
pero la mejor consigue el gol.**

Ahora, con **SEGURMEC** y **SURNEVIDA** puedes mejorar el precio de tu seguro de vida, el que tienes con tu hipoteca, o el que hiciste en su día para proteger a los tuyos de cualquier imprevisto.

Y si aún no lo tienes, ya es hora de que contrates el mejor seguro de vida del mercado.